

Nafarroakaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko uztailaren 1a / IV. urtea / 134. zenbakia

On Marino, gerrako apaiza



36ko gerraren atarian heldu zen Altsasura Marino Aierra apaiza, berak eskatuta, eta herrian bizi zen giroak erakarrita. Errepublikarra eskuindarren erresumaren erdian, Burundako herrian lehertzeaz zegoen egoera, eta Iruñeko Seminarioaren irakasle ohiari garai latzena egokitu zitzaion. Hiru urte ezin gogorragoak pasa eta gero, Ameriketara abiatu zen, eta han eskegi zuen sotana. Ondoren aterako zuen liburuak —'No me avergonzé del evangelio' ('Ez nintzen ebangelioaz lotsatu')— eragin handia izan zuen apaizgoaren artean ez ezik frankismoaren kontra zeuden askorengan ere. Orain, Helena Taberna zinemagile altsasuarrak gizon honen bizitza eraman du pantailetara, bere lehendabiziko erdimetraian. «Historia erikuperatu asmoz», bere garaian aintzindaria izan zenari heldu dio berriro Tabernak, Emiliana Zubeldiarekin egin berri duen gisa berean.

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



**Jaime,
soziolinguista**

Ez da zozoa, gero, Iruñeko alkatea. Irakurri, ez omen du irakurtzen, baina soziolinguistikari SIADECOKo edozein teknikari baino jantziago dagoela erakutsi berri digu oharkabeen.

San Ferminetako programaz ari naiz. Orain arte elebitako edizio bakarrean ateratzen bazen ere, bereizirik plazaratuko da aurten, 20.000 ale erdaraz eta 5.000 euskaraz. Horrela bi hizkuntzak parekatu ageri direla adierazi digute laino itxuran Herriko Etxetik. Ez da hagitz zakurra izan behar jakiteko, bestak iragan eta bi edizioen salmenten datuak alderatzen direlarik lotsagorritzeko aukera pollita izanen dugula hiriburuko euskaldunek. Dudarik ez, datu horiek oroitaraziko dizkigute heldu den urtean, programaren argitalpena berriz ere mahairatzen denean.

Jaimek, dena den, ez du deus asmatu. Elebaker jokatzeko egokiera ematea, gauden gaudenean, euskararen kontrako arma ere izan daitekeela erakutsi ziguten aspaldi. Euskarari buruzko Legea Parlamentuan eztabaidatu zenean, Foru Komunitateko Boletinak ere elebiduna izan behar zuen hasierako proiektuan, baina Del Burgo —hau ere, soziolinguista— arduratu zen, enmiendakin baten bidez, hizkuntza bakoitzak bere edizioa izan zezan. Gaurregun Nafarroako Aldizkari Ofiziala izena duen paper multzo hori, Erresuma Zaharrean euskaraz egiten diren ekintzetan garestiena eta ez-deusena da, lau itzultzaile eta bi sekretarioen irakurgai, 'ofizialtasun iduria' emateko eginkizuna ere ukatu zaiola. Patu bertsua, Errentaren Aitorpena egiteko inprimakiena —dozena bat lagunendako erabilgarri—, eta berdin munduak ahanzi edo administrazioaren zoko-mokoetan galdu diren bertze hainbertze papere-na. Horiek denak apostu galduak dira guretako.

Gizarte normal batean pozgarri lirartekeen erakutsiak opari pozointsu bilakatzen zaizkigu. Proklamak proklama, hainbertze kritikatzun dugun erdipurdiko elebitasun hau abaro goxo gertatzen zaigu euskaldun gehienei. Bederen, ez gaitu nabarmen uzten.

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Aintzinako Emakumeak izeneko erakusketa zabalik dago Bertzen, heldu den uztailaren 3a arte. Goizean eta arratsaldean dago zabalik, 10.30etatik 13.30ak arte goizez eta 16.00etatik 19.30etara arratsean.

Folklorearekin zerikusia duten jantzien eta erritual berezien erakusketa dago zabalik Burlatako Kultur Etxean, uztailaren 17a arte. Bertan, jantziak, keramika, argazkiak, eta beste material ugari ikus daitezke, lan egunetan arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara eta jai egunetan eguerdikoko 12.00etatik 14.00etara.

ANTZERKIA



Halokestamos antzerki taldeak 'Miles Gloriosus' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, uztailak 1, Tafallako Kultur Etxean. Herriko Kultur Patronatoak antolatuta, gaueko 22.00etan hasiko da, eta 'Antzerki gauak' izeneko zikloari amaiera emanen dio.

Aparrezko pailazoan jaia ospatuko da heldu den astelehenean, uztailak 4, Urdiainen, Sakanako Mankomunitateak antolatuta. Arratsaldeko 17.00etan hasiko da, herriko plazan.

BESTELAKOAK



Nanga Parbat eta Pakistani buruzko proiektzioa izanen da gaur ostirala, uztailak 1, Lakuntzako Udaletxean. Sakanako Kultur Zikloaren ekitaldien barruan, iluntzeko 21.00etan hasiko da.

'Pesta Txiki' izeneko jaia ospatuko da bihar larunbata, uztailak 2, Etxalekun. IKAK eta Ultzamako Euskara Zerbitzuak antolatuta, Imotz eta Basaburutar guztiak daude gonbidaturik Euskararen aldeko 'Pesta Txiki' honetara. Arratsaldeko 19.30etatik aurrera zenbait ekitaldi izanen dira: haur jokoak hasteko; 21.00etan 'Pakistaneko mendi bateko igoaldia' gaiari buruzko proiektzioa; txistorra, gazta, urdaiazpikoa eta txokolatada ondoren, eta bukatzeko Burlatako 'Axular' fanfarrea ariko da.

Pintura tailerrak antolatu dituzte udarako Lizarrako Gustavo de Maeztu eta Zumaiako Zuloaga Museoen, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Zumaiako udalaren laguntzarekin. Uztailaren eta abuztuaren izanen dira, goizez eta arratsaldez, eta apuntatzeko epea dagoeneko irekia dago. Interesatuek Lizarrako 54 60 37 eta Zumaiako 86 10 15 telefonoetara deitzea besterik ez dute.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Joxefa. Mezquiritz. Ernaga

Ahantzia nuen. Bai, duela zazpi urte pasatxo atxilotu zintuzten, eta Erroibarreko errepidetik joan izan naizenean soilik oroitu naiz zurekin, Joxefa. Zazpi urte da, Erroibarren atxilotetak izan zirela jakin zenean, aunitzek ezusteko eta zaplasteko galanta jaso genuen. Ez dut ukatuko.

Erroibarren halako militantzian sartutako jendea egoteak harritzeaz gain, poztu ninduen. Ez dira asko izan bere


jarrera politikoagatik kartzela pairatu behar izan duten pirinio aldeko naparrak. Horregatik, ETako talde batean hango jendea izan zitekeela pentsatzeak ezustean harrapatu ninduen. Ezin dut ukatu... Zentzu positiboan. Joan den asteazkenean, hoguei bat lerrotako sasiartikuluskaren izenburuan zure izena agertu zen. Bertan, Joxefa, Murtziako espetxean zazpi urte pasa ondoren bertze kartzela batera bidalia zinela jakinarazten zen.

Joxefa Ernagaren izena irakurritakoan bertan, Erroibarko bidea etorri zitzaidan gogora. Orreaga edo Donibane Garazi-

rako bidean, Mezquiritzeko gaina igotzerakoan dagoen Mezquiritz herrira daraman bidexkaren irudia gogoratu nuen. Ernaga, Joxefa, Zazpi urte, Erroibar, Murcia, Mezquiritz, Valencia, ETA, Puerto de Santa Maria. Azken zazpi ur-

txa horren zuzenketa herrikoia egin legoke. Hemen gaudenok ez dugu egin. Zu itzuli artio, zure herriaren izenak Mezquiritz izaten ez ote duen jarraituko galdetzen diot niere buruari.

Nerekoikeriaz



bada ere, neurosis obsesibata tamalgarrirrat eraman nezakeen egoera hau kontzeptuko bide daude: a) aipatu bidaiaren batean spray beltza eraman eta afitxa zuzendu; ala b) zuk espetxetik

teotan, Nafarroako Euskal Erreserban, 'Zona Vascofofona-n', toponimoak euskaraz idatzita daude bide ertzeko afitxetan (eta espainolak, badaezpada). Bon, ez danak. Zure herrirako bidea erakusten duen afitxak hain zuzen, Mezquiritzekoa zarela dio. Mezquiritzekoa, bai. Hiru aste pasa dira Mezquiritzeko gainetik igaro nintzenetik, eta ordurarte bederen afitxak hala zioen. Mendateak izenari eutsi dio gure Administrazio Foralaren bulegoetan; herriak, ordea, ez. Behar bada, apika, agian, zu Valencia edo Andaluzia aldean ez bazina, afit-

ihes egin dezazula. Lehenengo, sekula izan ez dudana auzardian pitinari eutsi eta edozein ortziraletan egin nezake. Baina... hurrengo bidaietan, egingako zuzenketa ikusteak berak Puerto, Valentzia, Murtzia, Zazpi Urte eta Joxefa ekarriko lizkidake gogora. Ez litzateke erabateko soluzioa. Bigarrenak, zuzenketa bion artean egiteko aukera eskainiko lizkidake... eta bide batez Baxe Nafarroan estuasunez bada ere bizitzeko aitzakia... Bon, Joxefa, ez dut uste ausartuko naizenik, baina badaezpada banoa helikopteroen alokairua zenbatekoa den galdetzera.

AHAZTU GABE!

TRIKITILARI TXAPELKETA

Lehen Trikitilari Txapelketaren finala ospatuko da igande honetan Iruñean, Peñen Eguna-ren ekitaldien barruan. Arratsaldeko seietan hasiko da, Iruñeko Alde Zaharreko San Francisco Plazan. Pasa den asteburuan Lesakan eta Arbizun izan ziren azken kanporaketak eta lehen 8 sailkatuak ariko dira Iruñean. Kanporaketetan puntu gehien lortu duen bikotea Etxarri-Aranazko Mundiñano anaiak osatzen dutena da. Elorriaga anai lesakarrak bigarren sailkatuak izan ziren eta hirugarren tokiari berriro ere etxarriarrak, Aritz eta Onditz Artieda, hain zuzen. Goizuetako Dani eta Ainhoa Nartabek osatutako bikotea laugarren sailkatu zen, Berako Amaia eta Joseba Irastorzaren aurretik. Seigarren bikotea Iruñeko Agirre eta Onditz Artieda (Arbizu eta Etxarri-Aranazkoa) izan zen, zazpigarrena Miren Mendiñeta eta Iruñeko Agirre arbizuarren eta zortzigarrenak, azkenik, Nerea Saralegi eta Naiara Agirre leitzarrek izan ziren. Finalean, bikote bakoi-tzak lau pieza jo beharko ditu.

jenero xumekoak

Arkupean

Klauns Kinski eta Aranoko neska atxilotu zituzten arkupean larrutan ibiltzeagatik, ez bait zekiten Klauns Kinskik klaustrofobia izanik eta Aranoko neskek agorafobia, leku gutxi zitzutela amankomunean.

ELIAS SARASA - ERRO

ASTEKO PERTSONAIK



Jose Borrell
Herrilan Ministroa

Itzoko gaia pilpilean dago aste hauetan, egun batetik bestera gauza berriak edota deklarazioak ateratzen baitira. Lanak, ordea, aurrera doaz. Borrell Herrilan Ministroak Txintxurrinea parajearen martxan zegoen harrobia itxi eta leherketak bertan behera uztea erabaki du aste honetan, «Europako erabakia ezagutu arte». Koordinakundeak politik, Nafarroako Gobernuak goibel, Herrilan Ministroak garbi azaldu zuen herenegun proiektua egingo dela: «harrobia ixteak ez du hainbesteko garrantzirik, materiala beste leku batetik atera daiteke. Europako erabakia ezagutu ondoren urtegia egingen da». Horrela erantzun zion del Burgo UPNkoak egin zion galderari. Egoera, ordea, ez dago batere garbi eta horrela segituko du Europako erabakia jakin arte.



Oscar Insausti
Pilotaria

Denbora luzez lesionaturik egon ostean, Sanfermin hauetan debutatuko du Insausti pilotariak profesional munduan, Asegarcek antolatu pala motzaren torneoan, hain zuzen. Urrian debutatzeko asmoa ez zuen betetzerik izan eta politik agertu zen Sanferminetan jokatzeko. Garridorekin batera Daniel eta Gorostiagaren kontra jokatu du lehen partiduan, finalera iritsi nahi badu irabazi beharko duena. Uztailaren 16an Bilbon aurkeztuko dute Insausti, beste ezbeharrak gertatzen ez bada, noski. Ez da hau bakarrik izango Torneoaren berrikuntza bakarra, Inaxio Errandonea eskuzko pilotaria ere bertan izanen baita. Banakako Txapelketa atzeratu dutenez, ezin zuen jokatu gabe hainbeste denbora pasa, eta Iruñean ariko da. Interesgarria oso aurtengo torneo.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...




Altsasu

Ulibarrenaren eskultura jarri dute

PATXI ULAIAR / ALTSASU Joan den astean paratu zuten Altsasuko Foruen Plazan intxaurrondo zaharraren zurez egindako eskultura. Jose Ulibarrenak egina, ikusmin handia sortu zen herrian eskulturaren inauguraziorako, eta ez zuen hutsik egin. Jendea miretsirik azaldu zen herriaren itxura berriarekin. Orain parez pare ikusi ahal izango dira eskultura eta intxaurrondo berria, bestea hil zenean landatu zena.

Altsasuko Foruen Plazan zegoen intxaurrondoa duela hiru urte kendu zuten betiko tokitik, hainbat urte lehenago ihartu zenetik zenbait altematiba aztertu ondoren. Onartu zen azken proposamena Azkoiengo Ulibarrenaren eskultorea izan zen; honek proposatu baitzuen intxaurrondoaren zura aprobetxatzea horrekin eskultura bat egin ahal izateko. Ideiak oso harrera ona izan zuen herritarren artean, zuhaitz zaharra herriko sinbolorik maitatuenetakoa baitzen. Betiko presentzia, alegia.

Eskultoreak, horrela, bi urtez izan zuen zura, tratamendu berezi baten bidez gogortu eta erabat sendatzeko, eta orain egin duen eskulturan Altsasuko bizitzaren hainbat ezaugarri azaltzen dira garbi. Ulibarrenak berak San Joan bezperan azaldu zenez, zerbait klasikoa egin nahi izan zuen, baina hemengo esanahai eta izakera errespetatuz. «Zuena da, zuen bizitzaren irudia» esan zuen plaza betean. Horrela, garbi azaltzen da erremonitari baten irudia, herrian izan den tradizio pilotazalea dela eta, eta beste aldean emakume handi bat dago «denok sortuak izan baidira emakumeengandik».



Eskulturak ikusmin handia sortu du.

AMAIA AMILIBIA

Halaber, badira Burundako mendiak eta basoak azaltzen dituzten irudiak, eta baita nekazari, artzain eta trenbideari zuzendutako irudiak ere. Horrekin batera, musika, kobazuloak eta irudi alegorikoak azaltzen dira estatuan, besteak beste Enrike Zelaia akordeolariarena. Eskultura kolore anitzez dago tindatua, eta lehen frontoia zegoen tokian paratu dute.

Esan bezala, San Joan bezperan inauguratu zen, eta jende

andana bildu zen bertan. Hiru ikastetxetako hiru gaztek kendu zuten irudia estaltzen zuen oiñala, eta aurreko eta txalaparta jo zen bere omenez. Eskultura behar bezala zaindu ahal izateko —urtetik urtera berniz berezi bat eman behar zaio, eguraldiak kalte ez dezan— herritarren artean banatu dira intxaurrondoaren ezpalkak, 500 pezetaren truke. Horretarako Intxaurrondoaren Adiskideak izeneko elkarteak osatu da herrian.

Baigorri

Ecomarche supermerkatu berria zabaldu dute asteazken honetan

L.E. / BAIONA

Asteazken honetan Ecomarche izeneko supermerkatuak atean ireki ditu Baigorri. Dituen hirurogei metro karratuekin ez da hain handia baina 12 laguntzat lana sortuko du. Hala ere, Baigorri herri txikia denez eta herriko sarreran kokatu dutenez, ohizko eztabaida sortu du eta saltoki txikiak beldur agertu dira «jan egingo gaituzte».

Jacques Etxebersek zuzentzen duen saltoki berria dauzkan beste bi supermerkatuen senide txiki agertzen da. Izpuran, Donibane-Garaziko sarreran, eta Itsa-

sun, Kanboko irteeran, dira, 66 pertsona enplegatuz. Prensan deklaratu duenez «ez du tokiko merkataritza kalterik eragin nahi». Bere ustez, barnealdeko komertzioari kalte gehien egiten diotenak, Baiona, Angelu eta Miarrizteko saltoki handiak dira. Supermerkatu guztien argumentua hargatik plazaratzen du, «tokiko bezeroa tokian finkatzea eta ahal bezainbat zerbitzuren honi eskaintzea».

Baigorriko saltokiek ez badute ere oraindik publikoki agerpenik egin beren grinak solasetan agertzen dituzte. «Herriko erdigunaren hustea» edo «bezeroen

bazterteza» dira dituzten kezkek. Baigorri berean diren Guyenne et Gascogne, Petit Casino edo Huit à Huit sare batzuetako partaide dira. Saltzaileak ez dira denden jabeak eta beren aldakuntzak beste nonbait baloratuko dira.

Eztabaida horren atzean, barnealdearen sare ekonomikoa zailtzan ageri da. Zerbitzuen eskaintza premiazkoa dirudi eta maiz saltoki baten itxteak tokia hustea adierazten du. Eroslearen beharrak ere aldatu egiten dira eta maiz baserriko jendeak 'hiriko jendearen' ibilmolde antzekoa du.

Arbizu

Sakanako kultur zikloa prest

ARBIZU

Sakana osoan zehar Kultur Zikloa antolatu du bertako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak uztaila eta urria bitarte. Ziklo honekin euskal kultura herri handi zein txikitara zabaldu nahi da, eta horretarako Sakanako Euskara Zerbitzuak eta udalak, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz, egitarau polita eta ugaria eratu dute. Ziordian, pailazoak izango dira uztailearen 16an, Herriko Plazan, eta Olaztin, aparrezko pailazoak, uztailearen 27an. Halaber, irailaren 29an Patagoniari buruzko proiektzioa ikusi ahal izango da bertan, eta urriaren 2an, antzerkia, Kika taldearekin. Altsasun Maskarada taldea egongo da ikusgai azaroaren 27an, eta Urdiainen aparrezko pailazoan jai izanen da, uztailearen 4an. Hil bereko 21ean pelikula proiektzioa izango da, abuztuaren 5ean bezala.

Arbizun pelikula proiektatuko dute uztailearen 20an, eta Lakuntzan Nanga Parbat eta Pakistani buruzko proiektzioa izanen da uztailearen 1ean. Abuztuaren 4an beste pelikula bat ikusi ahal izango da: 'Denboraren gibelean'. Iraitetan, proiektzioa haurrentzat, uztailearen 24an, eta Ihabarren aparrearekin pailazoan jai, uztailearen 23an. Azkenik, Irurtzunen, bertso afaria izango da urriaren 29an, larunbatean, Iratxo Elkartean.

Iruñea

Trikitilari Txapelketaren Finala igandean

IRUÑEA

Igande honetan ospatuko da, Peñen Egunaren ekitaldien barruan, Nafarroako I. Trikitixa Txapelketa, zortzi bikoteren partaidetzarekin. Ekitaldia arratsaldeko seiretan hasiko da, Iruñeko San Francisco Eskoletan. Arbizun eta Lesakan egindako kanporaketan ondorengoak, Etxarri-Aranazko Mendinueta anaiak gelditu ziren buruan, Elorriaga lesakarren aurretik. Hirugarrenak Aritz eta Onditz Artieta (Etxarri-Aranatz) izan ziren, eta ondoren Dani eta Ainhoa Narbarte (Goizueta), Amaia eta Joseba Irastorza (Bera), Irune Agirre eta Onditz Artieda (Arbizu—Etxarri-Aranatz), Miren Mendinueta eta Irune Agirre (Arbizu) eta Nerea-Saralegi eta Naiara Agirre (Lesaka) gelditu ziren.

Navarrieriako iturritik



Magila gorila

Batek daki nondik heldutako Magila Gorila ile hori batek lepotik helduta naukala idazten ari naiz lerro hauek, kasik testamentu moduan. Gaur goizean Navarrieriako iturrian Sanders pentsuekin hazitutako morrosko hau Hemingwayren urratsak segitzen zituela bere burua iturriko punta-puntatik behera bota nahian zebilelarik topatu dut. Tamalez, horrelakorik egin ez zezala eskatu diodanean esaten niona aintzat hartu, eta ni haren friend mina izanen nintzela erabaki du.

Dirudienez, Wisconsin edo batek daki nongo bere tour-operatzaileak —bira-operatorrak? tour-ebakitzaileak? bira-ebakitzaileak?—ziria sartu dio, eta Sanferminak uztailearen lehenean hasten zirela sinistarazi eta gero, bere bezeroa den Jonhy Whismuller mikrozefaliko hau behar baino aste bete goizago bidali du honuntza.

Jaiak ez direla hasi azaldu diot baina, a) ...esaten niona ez du sinistu. b) ...esaten niona ez du ulertu. (Zuk zeuk hauta ezazu erantzun egokia). Kontuak kontu, hori esan diodanean haserretzen hasi da, eta haserre hori *in crescendo* joan da segituan entzierrorik ez zegoela azaldu diodanean, eta gero zezenkatarik ez zegoela esan diodanean, eta beranduago Marceliano Hemingway alu horrek famatutako taberna bota dutela esan diodanean, eta...

Eta orain nire etxean gaude, zapi gorri bat nahi du, eta etxean zapirik ez dugunik ez duela sinisten esan eta gero, ea berataz barre egiten ari naizen galdetu dit. Tamalez, iazko Sanferminetako azken inbasio giputzak etxeko zapi gorri guztiak Aralar-ko perretxikoak bailitzan desgertarazi zituen, eta hemen nago, lepotik helduta eta hiltzear. Iraunbitez lortzen badut Barraka politikotaz galdezka «txosnak» non diren galdetzen didan lehen giputza Mendillorri-ral bidaliko dut. Iraunbitez lortzen ez badut, ongi pasa Sanferminak, gutxi gasta eta bueltak inondik inora ez amari, Lizarra, Tafalla, Tuter, eta gainontzeko guztiak aurretik dituzue eta.



Erdimetraia errodatzen ari zirela, Iruñeko karriketetan. Eserita, Fernando Guillen Cuervo, protagonista.

CRISTINA ROS

Altsasu, 1936' izena daraman erdimetraia bukatu berri du Helena Taberna zinemagile altsasuarrak, Marino Aierra bere osabaren inguruan osatuta. Gerra garaian Altsasuko apaiza izandakoa, eragin handiko pertsonaia izan zen Aierra, eta ez bakarrik herrian, 1956an argitaratu zuen 'No me avergoncé del evangelio' ('Ez nintzen ebanjelioaz lotsatu') liburua frankismoaren garai minean mesanotxekoa izan baitzen askorendako.

Elurpean alde egin zuen apaiza

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Bazen behin Burunda izeneko alderdiaren bihotzean herri bat. Herrixka ordura arte, gero eta herriagoa ordutik aurrera, trenbideak lana eta jendea ekartzen zuelako etengabe. Errepublikak garaian ezkertiarra azaldua zen garbi, ia erabat monarkikoa eta eskuindarra zen Nafarroaren erdian. 36ko gerra piztu zenean, egoera lehertzeaz zegoen. Badugu ingurua, espazioa.

Bazen behin Irunberrin jaiotako apaiz bat, gizon prestua eta zuzena, ezagutzen zuten guztien iritziz. Iruñeko Seminarioan irakasle izanik, herrian apaiz berria behar zela eta, bere burua aurkeztu zion orduan Iruñeko apezpikua zen Marcelino Olaetxeari bertara joateko, askoren ustetan «erradikalen kobazulo» hartan predikatzeke. Trena hartu behar zuen egun berean apezpikuarekin izandako elkarrizketan, kontseilua eskatu zion apaizak, bere lana ahal bezain ondo betetzeko argitasuna. «Joan zaitez» esan

zion orduan Olaetxeak, «eta izateko, hitz egiteko eta jarduteko erarengatik, denek pentsa dezatela berehala eta betiko, haiek ezkertiarak baldin badira, zu are ezkertiarra izango zarela, ez dizutela horretan irabaziko». Helburu horrekin heldu zen 1936ko uztailaren 17an gure apaiza herrira. Gerraren atariko egunean, hain zuzen ere. Badugu pertsonaia nagusia.

Bazen behin herritik gertu zegoen ermita txiki bat, herri hori astinduko zuen sermoia entzuteko ohorea izan zuena. Sermoiak izugarritzko haserreak, alde batetik, eta emozioak, bestatik, piztu zituen herritarren artean, eta bertan izan zirenek oraindik gaur egun gogoratzen dute. Aipatu zituen gure apaizak botere-tuen eta pobreen arteko diferentziak, mintzatu zen karitate faltaz eta azpimarratu zapalduak bidegabekeriaren aurka altxatzeko egiten dituzten ahalegin bidezkoak. Amaitzean esan zuen: «Eta odola nahi duena joan dadila gerrara. Hemen, bakea eta

karitatea». Hainbeste zalaparta sortu zuen non Errepublikaren aldeko egunkari batek argitaratu baitzuen. Badugu eszena nagusia.

Bazen behin, apaizak, herritik alde egin eta gero, eta sotana betiko erantzi ondoren, argitaratu zuen liburua. Bertan herrian bizi izandako guztia aipatzeaz gain, bere ikuspegia azaltzen zuen guda eta bidegabekeriaren inguruan. Liburua herriko ia etxe guztietan irakurri zen isilpean, ezkutuan, eta Nafarroan ezezik, toki askotan ere izugarritzko eragina izan zuen frankismoaren

Aierraren liburua herriko ia etxe guztietan irakurri zen isilpean, ezkutuan, eta askorendako mesanotxekoa izan zen.

garai minean. Liburua, are, apaiza askoren mesanotxekoa izan zen, eta batzuek diote Askapenaren Teologiaren aitzindaria izan zela. Badugu aitzakia.

Herria Altsasu zen, pertsonaia Marino Aierra, eszena bertako Kristo Otadiakoa gerraren lehen urtean izan zen sermoia, eta liburua 'No me avergoncé del evangelio' ('Ez nintzen ebanjelioaz lotsatu'). Dena batzeko eta historia inoiz izan ez duen oihartzuna emateko, idazle, poeta edo zinemagileren bat behar genuen. Pertsonaia, ingurua eta historia ondo ezagutuko zuena, eta baita hori ateratzeko interesik izango zuena: Helena Taberna zinemagile altsasuarra, Marino Aierraren iloba. Badugu zinemagilea. Badugu pelikula. Badugu historia berreskuratuta.

Hil honetan amaitu du errodaia, eta esperientzia sakona izan zaio, bistan denez. «Marino Aierra pertsonaia», azaldu du zinemagileak, «izugarritzko garrantzia izan du betidanik niregan. Hamazazpi urterekin iraku-

rri nuen liburua eta bonba izan zen nire baitan. Duela bi urte berriro liburua hartu, berrirakurri, eta pantailetara eramatea erabaki zuen. Erronka usaina alde guztietatik, hainbat arrazoirengatik. Hasteko, osaba zen, eta horrek bazekarren erreferentziak eta historia gehiegi kutsatzeko arriskua. Hori uxatzeko, garaia bizi zutenekin elkarrizketak egin zituen Tabernak, eta bere esperientziatik bertatik ateratakoarekin nahastu zuen. Halaber, oraindik itxi gabe dagoen zauriaren kiratsa antzeman zuen berehala, eta horren lekukoak dira pelikula egitean Elizarekin izan dituen arazoak. Hain zuzen ere, arras mesfidati azaltzen zen zinemagilea errodaia bitartean, eta bere susmoak baieztatu besterik ez direla egin dio bukatutakoan. Barne arazoez gain, baziren oztopo materialak. Hau izan da bere lehendabiziko metraia luzea, orain arte laburmetraiak eta bideoaren munduan aritu baita Taberna. Horretan ere ez omen du hutsik egin. Asko go-

'Altsasu, 1936'

mintzoak

Reallity show eta albistegiak

● Reallity show delakoetan gezurrik aurkitzen ez dutenek egiazkoak edo errealtatearen arabekoak direla ateratzen dute ondorio. Baina errealtatea eta dagoena ez dira gauza bera. Dagoena bere kabuz existitzen den bitartean, errealtateak badu bere beharra. Zehatzago erranda, gure osotasunaren beharra. Horregatik harrizkoa da show horiek gurekin estutu omen duten harremana, baina ez naiz horretan sartuko.

Azken hilabeteotan telebistako albistegiek bilakaera nabarmena jasan dute berri eta irudien tratamenduan. Adibidez, orain luze ez dela berri emaileak aitortu ohi zituen irudi gordin bat erakusteko orduan izandako zalantzak. Konturatzerako zalantza bakarra izan zen, alegia, ikuslearen sentsibilitatea mintze-koa. Huskeria bat irudiaren balioaren parean. Gaur egun irudi hori lehertu egiten zaigu begi aintzinean, albistegiaren sarrera gisa.

Euskaraz 'mindu' hitzak badu adiera bat baino gehiago, eta zalantza bat baino gehiago eragin beharko luke berri emailearengan. Sentsibilitate mindua irudi huts bat bezain irrealia baita berez —bezain berekoa—. Sentsibilitate mindua bere kabuz bizi da bere kabuz bizi direnen artean. Ez du errealtatearen osotasunaren beharrik.

Paradoxa dirudi honek ere, baina afektibo hutsak ez du

harremanik batere bilatzen. Guregandik berea deritzona nahi du bakarrik. Guregan bere burua bertze ezer ez du maite.

Gauza bertsua erran genezake arrazonamenduari buruz, jakina. Oinarrian zera dago, gure pentsamoldeak gero eta nekezago bereizten dituela 'izan' eta 'eduki' konzeptuak.

Kasu honetan, gure seme-alabei gizakia arrazoidun animalia dela iraksten diegun arren, arrazoizkotzat jotzen dugu informazioa arrazoidun azaltzen delakoz. Objektivotasunaren alkimia merke baten sinesleak edo, uste dugu edozer bihurtzen dugula errealtate. Eta nortasunaren merke batean salerosleak, uste dugu edonor bihurtzen dugula errealtatekide.

Ni ez naiz sintesizale, baina hizkuntz-hezkuntza nahaste horiek zerbait egotzekotan, geure konplexutasunaren frustrazioari leporatuko nizkioke. Zeren-ta teoriar iraupen hutsaren gainetik iharduteko gauza izanik ere, praktikan ez baitugu konkista horretaz gozaterik beldurrik gabe.

Hortik burua —kritika— instinto mailan erabili beharra. Eta bihotza —solidariteta— sentitu beharra zangomotzak oin punta sentitzen duen bezala.



Helena Taberna, zinemagilea.

CRISTINA ROS

zatu duela dio, eta azkenean luzemetraia egiteko nahiko material atera bazaio ere, 30 minututan utziko du lana.

Ez da erraza azaltzen Marino Aierraren garrantzia —akaso 'garrantzi' hitza ez delako egokiena—, baina gure hondarreko historiaren pertsonaiarik interesgarrienetakoa dugu, dudarik gabe. Altsasun egon zen hiru urteetan, herria markatu zuen, baina garaiak irudi nahasia utzi zuen, debekatua eta nahasia. Bere agurrean, herritar andana hurbildu zen geltokira, elurpean. Isilik agurtu zioten elkarri. Orduan utzi zuen hazia, ordea, ez zen garatu. «Beldurra oso eraginkorra da», dio Tabernak, «eta garaiak utzi zigun ondare hori: isiltzea. Hor dirau zorne odoloztatutak, hainbeste tapatzearen poderioz, eta hori sumatzen dut nik gazterian: desosegua, historia ez ezagutzeagatik».

Hiru urte gogor haien ondotik, salatua eta madarikatua izan ondotik —maitatua eta apreziatua izan zen bezainbeste— Ameriketara abiatu zen, etsita, eta bertan eman zituen ondorengo urteak. 1987an hil zen arte. Liburuan gordinki azaltzen diren gertaerek —apezpikuarekin eztabaidak, herrian bizi zuen egoeraren aurrean bere jarre-

ra, Elizaren babesean egiten ziren bidegabekeriak—, betiko zizeldu zuten, eta bere ilobak dioenez, oso minduta oso atera zen Altsasutik, Amerika helmuga zuela. «Gerraren inguruan Eliza ofiziala izan zuen erreakzioak hil zuen, eta Ameriketara antzeko arazoekin topo egin ondoren, etsi egin zuen».

Ameriketara jada, liburua argitaratu zuen, 1956an, eta hiru edizio egin ziren. Altsasuko ia etxe guztietan dago oraindik. Jesus Lezaun teologoaren ustetan, lanak arrakasta handia izan zuen, orduko apaizen artean ezezik, garai hartako (1956an) egoera politikoan mugitzen hasten zirenean ere. «Esan zigutenean sotana erantzi zuela izugarritzko inpresioa jaso genuen seminarioan, orduan hori oso larria zelako, baina liburua irakurri genuenean, ezkutuan, jabetu ginen

A paizak erabat markatu egin zuen herria. Bere agurrean, herritar andana hurbildu zen geltokira, elurpean.

bertan zerion izpiritueltasuna eta zintzotasunaz».

Ez zen inoiz itzuli Altsasura, nahiz eta horretarako diru bilketa hasi zen. Ez zuen etortzeko gogorik, ez zuelako nahi sentimenduak berriro astintzea. Gainera, ez zuen onartzen itzultzea garaile balitz bezala, gizon apala baitzen berez. «Eskerrak ez zen etorri», dio Tabernak, «ez baita gizakirik horrelako inpresioa jasan dezakeenik. Hainbeste urte pasatuta errealtatearekin aurre egotea oso gogorra da».

Zinemagilearen ustetan, oso itzal iraunkorra utzi zuen, bereziki bere etika, «eta guk izan nahiko genukeen bezalako pertsona baten inguruan sortzen den errespetu sakona». «Balio handiko pertsona zen», dio Lezaunek, «eta gerraren ondoko garaietan artean sumatzen zen Altsasun bere izakeraren itzal ikustezin eta mutua, baina benetan garrantzitsua». Bere liburuaren lemak —'Garai pentsatu, sakon sentitu eta garbi mintzatu'— bere bizitza laburbildu zuen. Ez zuen, akaso, jendearen estima jasotzeko aukerarik izan, garaiak gogorak izan zirelako, baina oraindik altsasuar askoren gogoan dago eguzkipean, garaiak oraindik larriak ez zirela heldu, eta elurpean alde egin behar izan zuen apaiza.

Angel Garcia Etxandi Idazlea




Emiliana Zubeldiaren dokumentalaren errodaian.

CRISTINA ROS



XAKEAN



Údaberri Torenoarekin bedertzigarren ihardunaldiko partida, 1994ko ekainaren 18an jokatu.

Rafael Ruiz Escobar, 2.055 ELOkoa-Alfredo Rada, 1.685 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.Zf3,g6; 3.Zc3,Ag7; 4.Af4,d6; 5.e3,c6; 6.Ae2,0-0; 7.Dd2,Ge8; 8.e4,bZ-d7; 9.h3,Db6; 10.Za4,Dd8; 11.Zc3,Zh5. Ez da leku ona. 12.Ag5,c5; 13.d5,Ze5. Posizioa ez dute ondo neurtu beltzek. Ondorioa: Erregea agerian geratuko da, eta peoiak tokiz kanpo. 14.Ze5; Ae5; 15.Ah5,h5; 16.f4,Ag7; 17.0-0,f6; 18.Ah4, Ah6. 'Gf8' jokaldiak 'h5-eko' peoia defenditzaeko aukera ematen zuen. 19.De2,Eh8; 20.Dh5,Ag7; 21.e5. Txuriek barneratzeko asmoa daukate: 21....,fe5; 22.e5,Ae5; 23.Gf7,Ag7; 24.Ge1.

21...., Gg8; 22.e6. Beltzen 'c8-ko' alfila jokorik gabe utzi dute. 22...., Db6; 23.Gb1,c5 xa; 24.Af2,Dd8; 25.f5. Orain 'g7-ko' alfila itxi dute. 25...., a6; 26.Ae3,b5; 27.Gf4,De8; 28.Df3,Ah6; 29.Gh4,Ag5; 30.Ag5,Gg5; 31.Gd1,Dg8; 32.Ze4,Gg7; 33.g4,Ab7; 34.Zg3,Dd8; 35.Zh5,Db6 xa; 36.Eh2,Gg5; 37.Zf4,Eg7.

Ikus Koadroa. Txuriek ez dute problemarik izanen beltzak txikitze.

38.Gh5,Gg8; 39.Gg5,g5; 40.Zh5 xa,Ef8; 41.f6,Gg6; 42.e7 xa.


Nahikoa! Partida hemen bukatu zen.

Bertso saioak

Bertsolaritza oso gauza interesgarri eta atsegina da. Nahiz eta aspergarria edota serioa iruditu, saio bakoitzean denetarik aurki dezakegu: ironia, txantxa, politiko edo beste motatako kexak, etab.

Egia esan nik lehen bertsolaritza gauza serio eta aspergarri bat bezala ikusten nuen. «Ordu t'ardi baino gehiago sala batean eserita, hamarren bat bertsolari behin eta berriz eszenataria ateratzen, eta gainera gaiak, batzutan, berdinak guztiontzat, ze aspergarria!».

Bai, hori pentsatzen nuen. Baina beste




Ainara Fernandez

(BARAÑAIN)

Nola ez Nafarroako XXI. Bertsolari Txapelketako finalean egon nintzen, Estitxu Arozenaren bertsoak ez baintuen galdu nahi eta ezta ere beste bertsolariak ikusteko aukera, Nafarroako hoberenatarikoak baitziren, Manolo Arozena, Txomin Ezpona, Xalbador II, Ernest Alkhat, Joe Miguel Argiñarena eta Xabier Silveira bertsolari gaztea. Nahiz eta denak oso gustukoak izan nituen, esan beharko dut Gaiarretik atera nintzela jendea Osasunak irabaztean ateratzen den bezala, poza berezi horrekin, Arozena txapeldun geratu baitzen.

Ostiral hartan, beste bertso saio berezi bat ikusi ahal izan nuen, Nafarroan gutxi-



aldetik miresteko modukoa iruditzen zitzaidan bertsoak bapatean egiteko ahalmena, gainera, esaten zuten bertso onak.

Egun batean ikastolan bertsotan arituko ginela esan ziguten, astean behin, uste dut. Momentu horretan pentsatu nuen «kaka, ze aspergarria eta ze roilola!». Eta

nahiz eta momentu horretan ez konturatu, gero eta gehiago interesatzen hasi nintzen bertsolaritzaren munduaz. Bertso saio batzuetara joaten, sortzen den giro berezi hori, farrak, airean somatzen zen giro atsegin hori gustatzen hasi zitzaidan gero eta gehiago. Konturatu gabe ia saio guztietara joaten nintzen.

tan ikusi ahal dezakegun horietakoa. Sailestarren aretoan, hain zuzen, Sarasua, Egaña eta guzti horiek ikusteko aukera izan genuen Iruñeko bertsozaleek.

Baietz hurrengoan han agertu guztion artean arratsalde alai bat pasatzeko?

Badira zenbait aukera galdu ezin ditugunak.

JUANTXO URDIROZ

Bortxaketa eta Nafarroako Foru Nagusia

Luis del Campok Cuadernos de Etnologia aldizkarian aztergai dauka bortxaketa Nafarroako Foru Nagusi zaharrean. Esate baterako. Biolazioa eta bortxaketa ez dira gauza bera, antza. Biolazio hitza modernoagoa da 'emakumeak fortaxtea baino'. Biolazio guztiak bortxaketak ziren baina bortxaketa guztiak ez ziren biolazioa. Biolazioa delitu bat da eta 'emakumeak fortaxtea' zenbait kasutan ez zen delituzat hartzen. Historiagileak dioenez, bortxaketarik ezagutzen ez deneko garai bakarra emakumeek agindu eta gober-

natzen zuteneko hura izan zen, kobazuloko matriarcado-n. Beste muturra feudalismoa omen da. Garai hartan bortxaketak zenbait lekutan sistemati-koak ziren, eta ohitura bat zen. Euskal Herrian Butroiko Kondeak ospe handia lortu zuen eginbehar horretan. Esklabu izatetik morroi izatera igarotzean, jauntxoari sexu eskubi-deak murriztu zitzaizkion. Lehendabizi, ezkondu berria bortxatzeko epea hiru egunetik egun bakar batera gutxitu zitzaion handizkiari, eta denboraren buruan perna besterik ezin zuen



Ez usteak zure atean joka

**Biolazio guztiak
bortxaketak ziren,
baina bortxaketa
guztiak ez ziren
biolazioa.**

sartu. Horri 'pemada eskubidea' zeritzaion. Aramaioko neska baten kasua gogorarazten digu historiagileak. Jauntxo bere onetik aterata zetorrela ikusirik, behi-kakaz igurtzi zuen bere gorputza. Jauntxoak atzera egin omen zuen. Nafarroako foruetan emakumezkoekiko begirunea gutira-gutira nola garatzen den ikus daiteke. Garai batean ez zen bortxaketa zigortuko. Gero, idi bat pagatzearekin aski zen barkatzeko eta azkenean hilketa baten merezi zuenaren erdia pagatu beharra zen, gizarte-mailak gorabehera. Ez dago esan beharrik garai hartan 'aitoren seme' izateak zein garrantzi zuen. Izan ere, horrelakoxe sailkatzen dira delituak, gaizkile eta biktimaren gizarte-mailaren arabera.

Bortxatzaile kaparea edo handizkia bazen eta bortxatua bilaua, isun bat pagatu behar zen, eta ez da zehazten, aldiaren uste den aldikoa. Bortxatzaile bilaua eta bortxatua kaparea, urkamendira lehendabizikoa. Biak kapareak, orduan ezkondu edota bortxatzaileari ondasunak kendu. Igurtzea ere bortxaketatzat har zitekeen 'Que iure que non la fodió nin la fregó' ('Zin egin dezala ez zuela bortxatu eta ez zuela igurtzi'). Emakumea ezkondu baldin bazegoen, senarrak ezin du bortxatzailea ajustiziatu. Bere emaztearekin bizi izaten segitu behar du 'Devela tener assi como nuyll mal esta oviese fecho' ('Onartu behar du emaztea, ezer txarrik egingo ez balu bezala').

Erroibarreko emigranteak bilduko dira asteburu honetan beren jaioterrian, bertako Udalak hartu duen ekimenari esker. Ameriketara joandakoek, horrela, duela hamarkada batzuk utzi zuten herria bisitatuko dute berritxo, eta festa handia izanen da, gonbitea 50 bat lagunek onartu baitute. Ibar honek Nafarroan ez bezalako emigrazioa jasan behar izan zuen mende honen erdialdean, eta sos eta etorkizun bila alde egindakoek izango dute, orain, erroetara itzultzeko parada. Errora.

Erroetara itzuli

PATXI ULAIAR / IRUÑA


Estatu Batuetako Kalifornia aukeratu zuten gehienek, San Frantzisko hiriko alde hori. Beste batzuk Uruguay eta Argentina abiatu ziren, eta bakan batzuek Frantzia eta Txile nahiago. Ardieta joan ziren, Erroibarrek eskaintzen ez zien sos eta etorkizunaren bila. Gehienak itzuli ziren lauzpabost urte bertan emanda, baina beste asko bertan lakatu ziren, bizimodu berrira egokitu. Familia osatu zuten, finen: diru bila joan, eta azkenean bizitokia aurkitu zuten bertan. Orain, gelditzeko nahikoa arrazoi eman ez zien herriak eskaintzen die, sikiera, biltzeko aukera. Hiru egunetan, mundu zabalera joandakoak herrira itzultzeko ai-

Nafarroan betidanik izan du fama baztandarren migrazioak, baina Errok, batez beste, emigrante gehiago izan ditu.

tzakia izanen dute, eta utzi zuten lurra bisitatzeko parada.

Dena Peio Zenoz Erroibarko udal idazkariaren ahaleginari esker sortu zen, berak, Erroibarreko biztanle askok bezala, harreman eta ezagun asko baitzituen ozeanoz bestaldean. «Nire emaztea bera hara joandakoen alaba da, eta bere gurasoak gu ezkondu ginenean itzuli ziren hona». Izan ere, jarrera desberdinak izan ziren kanpora atera behar zuten herritarren artean. Batzuek ez zuten inoiz ahaztu herria, eta etortzea beti gogoan. Haiendako euskal etxeak ziren atxikimendurik handiena. Ahal zuten gehienak herrira itzuli ziren. Beste batzuek berehala hautsi zituzten loturak, eta bertan ezkondu, eta familia osatu eta gero, lur berrian lakatu ziren betiko. Horiak eman zuten ardiak zaintzetik dendariak edo beste lanbideren batean aritzera jauzia, eta beren ondorengoak amerikarrak dira, peto-petoak. Sorterritik soilik abizena gordetzen dute egun.

BIDAIA EZIN ORDAINDU Denei, baina, Erroibarrek biltzeko deia egin die orain, Udalak berak dituen aukeren barruan, beti ere. «Ezin



Emigrante gehienak Olondritz eta Mezkirizkoak dira.

Emigrazioak ez du etenik

P.U. / IRUÑA

■ Erroibarrekoak ardieta joan ziren bereziki, eta haietako asko itzuli egin ziren. Baztan edo Nafarroa Beheretik joandakoak ez bezala, gutxi gelditu ziren gero bertan bizitzen. Horiak dendariak, lorezainak edo taxistak izan ziren. Nafarroak Euskal Herri osoak bezala, izugarrizko jarioa izan zuen 1880tik 1920ra bitartean, orduan 10.000 nafar inguruk alde egin baitzuen beste bizimoduren bila.

Ondoren ere ez zen eten joera.

Ez da datu ofizialik, baina zenbait kalkuluren arabera, 200 bat lagunek utzi zuten ibarra 40 eta 50eko hamarkadetan. Horiarik hirurehun bat ondorengo geldituko ziren oraindik Amerika osoan sakabanaturik. Gehienak Olondritz eta Mezkirizkoak dira, egun doza erditik gora familia duten herrietakoak, hain zuzen ere. Gehienak ere San Frantziskon bildu ziren, Euskal Herriko beste hainbat herrietatik joandakoekin batera. Gero itzuli zirenek gogoratzen dutenez, Madrilera abiatzen ziren lehendabizi, eta han kartel bat paratzen zieten

bularrean, norbere izenarekin. Ingelesa tutik ere ulertu gabe, hango senideekin biltzen ziren gero, haien negozioetan lan egiteko.

Hori, baina, ez da izan emigrazio bakarra. Bertako alkateak oraindik gogoratzen du ondoren jarraitu zuen jario etengabea, batez ere Iruñea aldera. Gaur egun 755 biztanle bizi dira ibar osoan, eta azken bost urteotan ehun gutxiago dira. Beherakada etengabea. Festaren aurrekontua bi milioi pezetakoa da, eta Nafarroako Gobernuak % 60 paratuko du.

diegu bidaia ordaindu» dio Zenozek, «baina hemengo jaiak eta bidaiak eskaintzen dizkiegu. Izan ere, askotan etortzen dira handik senideak, baina urte ezberdinetan, eta ez dute biltzeko aukera. Orain nahi ditugu denak elkarrekin bildu hiru egunetan, beren senideekin egoteaz gain, beraiena bezalako abenturan sartu zirenekin ere egoteko». Nafarroan beti izan du fama baztandarren artean sortutako emigrazioak, baina Errok, batez beste, Baztanek baino emigrante gehiago izan ditu. Esate baterako, bikoitza da kanpora atera zirenen kopurua Iruñera joan direnenarekin alderatuz gero. «Errok askoz gutxiago eskaintzen du, alderdi pobregoa delako. Kanpora atera be-

Berrogeita hamar bat helduko dira, gehienak San Frantzisko aldekoak. Han bada oso talde garrantzitsua, eta gogo onez hartu dute ideia.

harra, beraz, ezinbestekoa zen ia».

Berrogeita hamar bat helduko dira, gehienak San Frantzisko aldekoak. «Han bada oso talde garrantzitsu bat, eta, nonbait, gogo onez hartu dute ideia» dio idazkariak. Jendeari gonbitea egiteko, lehendabiziz herritarrei eskatu zitzaizkien senideen helbideak. Horiak egin eta gero, euskal etxetara bidali ziren gonbidapenak, eta baita nafar zentroetara ere. Erantzuna oso ona izan da, eta ez dira falta bitxikeriak. «Jim Erro Nevadako batek idatzi zigun, ingelesez, jakina, esanez ea inguruan hotelak eta alokatzeko autoak baziren. Halaber, batzuek idatzi digute bidaia ordaintzen ote genien galdezka, dirurik nahikoa ez zutelako, eta beste batzuek hilabete daramate dagoeneko herrian, gauzak oso ongi atera zaizkelako».

Horrela, igandean, meza izanen da Orreagan eta jaiak Mezkitzen, herri kirolak, trikitixa, herri bazkaria, eta dantzariak izanen dira. Astelehenean, uztailak 4, Nafarroako lehendakariak harrera ofiziala egingo die, eta asteartean ibilaldia egingo dute Nafarroan barna: Leire, Xabier, Eunate, Gares eta Lizarra bisitatu dute.

«Dena aldatu nahi nuke»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nola animatu zinen lehiaketan parte hartze-
ra?

JON UITZI.— Beti izan nuen zerbait idazteko gogo, eta ikastolan esan ziguten bazela lehiaketa, eta animatzeko. Batzuk hasi ginen baina amaitu bi bakarrik. Aste guztian pentsatzen aritu nintzen, zertaz idatzi behar nuen eta. Asteburua iritsi, eta larunbatean jaiki nin-

tearekin batera, bide berriak irekitzen zitzaizkidan, eta batzuetan irtenbide bakarra, eta ez nik pentsatzen nuena. Azkenean hortik joan nintzen, eta amaitu ondoren titulua jarri nion.

EGUNKARIA.— Autobiografi-
koa atera zaizu?

UITZI.— Agian pixka bat badu nere pentsakera, baina bizitzeko eran ez. Haur batek hil ondoren, zeruko atean San Pedrori kontatzen dio bere bizi-

gehien izorratzen zaituena?

UITZI.— Nere herria ez nuke aldatuko, baina bai pentsakera batzuk. Herriko giroa oso ondo dago, baina horren barruan badago beti bestearen kontra lehia bat, eta hori ez zait gustatzen. Hori leku guztietan dago. Nere liburua ere lehia-keta batean zegoen.

EGUNKARIA.— Ipuin beltza eta pesimista da. Hala iruditzen zaizu zuri ere?


UITZI.— Pesimista baino, bel-

ko ahotsak, bakarhizketa horiek.

EGUNKARIA.— Zer desberdintasun sumatu dituzu Goizueta eta Iruñearen artean?

UITZI.— BBBko azken kurtsuak egitera etorri nintzen Iruñera, San Fermin Ikastolara. Erdaraz abildade gutxi daukat, eta harrapatu dudan ustekaberik handiena izan da hemen ikasi dudala erdaraz, ikastolan. Lagun giroa eta, dena beti erdaraz. Gainera, nik banuen beldurra hona etortzeko esana zidaten eta hemen erdaraz egiten zela.

EGUNKARIA.— Eta zer pentsatzen du betiko euskaldun



Jon Uitzu, Iruñean.

JOXE LACALLE

tzen goiz, eta segituan idazten jarri nintzen. Dena etorri zitzaidan kolpera. Sarrera nahiko fuertea nahi nuen, eta sarrera hori gauzez etorri zitzaidan burura. Gero ez nekien nola jarraitu, baina sarrera hori ikusita esaten nuen: 'Nola utziko dut hau horrela? Bukatu behar dut!'. Azkenean bururatu zitzaidan amaiera eta bukatu nuen.

EGUNKARIA.— Titulua berez berezia edo gogor samarra da.

UITZI.— Ideiak oso errealista izan behar zuen, baina mundu honetatik gehiegi irten gabe, eta hasi nintzen haur bati buruz hitz egiten, eta haurrari gertatzen zitzaiona, bere pentsamenduak, bere bizitza, hori guztia adierazi nahi nuen. Beste titulu bat zuen hasieran, eta hasi nintzen idazten. Baina pixkanaka-pixkanaka, idaz-

tza, eta bere bizitza bere oroimena da. Bizitza kontatzen ari den bitartean, elkarrizketan sartzen dira tarteka.

EGUNKARIA.— Idaztearen prozesua iruditu zaizu polita, nekoso...?

UITZI.— Niri gustatu zitzaidan. Ez nuen espero irabaztea, baina gustatu zitzaidan egin nuen lana. Idazteko lehenengo hasi egin behar da, eta gogo behar da, eta horrekin jarraitu behar duzu lanean, pentsatuz, birmoldaketak egiten, eta guzti horretarako behar duzu lan egiteko gogo.

EGUNKARIA.— Kritikoa zara?

UITZI.— Bai, ni nahiko kritikoa naiz, baina denekin eta edozer gauzarekin. Mundu hau aldatu nahi nuke gainera, baina uste dut ezinezkoa izango dela.

EGUNKARIA.— Zer aldatuko zenuke lehendabizi? Zer da

tza, errealitatea bezalakoa. Bestela irrealitatera joan behar nukeen, eta erreala nahi nuen. Beraz, beltza.

EGUNKARIA.— Aitak ez omen zuen ulertu zure ipuina.

UITZI.— Ezta deus ere. Baina erakutsi nionean, nahiko berandu zen, eta aita menditik etorria zen, eta orduan nituen zortzi orri eginak. Amak hartu zitzaidan, eta aitari leitzen hasi zen, eta bosgarrenerako ja loak hartua. Ezta deus ulertu ere. Ezta amak ere.

EGUNKARIA.— Idazleren bat imitatu nahi izan duzu ipuina egiterakoan?

UITZI.— Imitatu... hain gutxi irakurri ditut! Gustatzen zait asko Saizarbitoriaren 'Egure hasten delako' liburuan eta Atxagaren azken liburuan azaltzen diren pertsonaien barne pentsamenduak. Barne-

«Erdaraz abildade gutxi daukat, eta izan dudan ustekaberik handiena izan da hemen, Iruñean, ikasi dudala erdaraz, ikastolan».

batek Iruñeko euskaldunekin topo egiten duenean?


UITZI.— Nik orain erdaraz egiten dut gehiena, pentsatzen dudalako beraiek ez didatela ulertuko. Etorri nintzenean erdaraz ez nekien eta bakarrik euskaraz hitz egiten nuen. Batura ere gutxi hitz egiten nuen, eta maisuek noizbehinka galdetzen zidaten 'e?', berriz errepikatu beharra nuen. Gero, lagunekin, mantso-mantso hitz egiten nuen, eta denak niri begira. Bukatu eta baietz esaten zidaten, baina ulertu ez balidate bezala.

EGUNKARIA.— Aldatu nahi dituzun gauza horiek guztiak aldatzeko literaturak balio duela uste duzu?

UITZI.— Literatura behar da, eta beste ekintzak ere behar dira. Denetarik behar da, mundu hau alda dezagun, bestela... Bultzada handiagoa behar da zerbait egiteko.

Jon Uitzu

IDAZLEA



SOSLAIA

Goizuetar petoa

Iruñeko Udalak antolatutako Gazteentzako I. Ipuin Lehiaketa irabazi berri du 18 urteko goizuetar honek. Irabazi, eta denak harritu. 'Bizitzak bizitza merezi ez duelako' ipuinarekin, idazle planta handia aurkitu dute bertan mahaikideek, eta denek aipatzen dute badela harrobia, etorkizuna. Berak, ordea, liburu askorik ez duela irakurri dio, baina Saizarbitoria eta Atxaga aipatzen ditu, eta horien liburuetan azaltzen diren barne hotsak, bakarhizketak. Goizuetar peto-petoa, erdarak harritu du Iruñean, eta herrikoa izateaz harro azaltzen bada ere, bertan bizi den lehia, besteengan pentsatu beharra, gaitzes-ten du.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

